



# BERTSOLARITZA

Begirada feminista bat



**B**adut fedea Frida Kalhoren  
bekainen baso tankeran,  
Virginia Wolfen gela hutsean,  
eta Saforen aukeran,  
berdin Maria Magdalakoan  
eta Beauvoirren kaieran,  
Marie Curieren karreran,  
bular gabeko Agedan,  
Adanik gabeko Eban,  
Mogel, Borda ta Lujanbiogan  
nola haiengatik geran  
eta izenik jarri ez zaien  
emakume guztiengan

*Uxue Alberdi*



ZARAUZKO UDALA  
PAREKIDETASUN SAILA



# Orain arte...



## ■ Bertso-eskoletan:

### **Bertso eskoletako emaitza gara: elkarrekin hezi.**

- Neska eta mutilak gaitasun desberdinekin bertso eskolara. Ez da bereziki landu: denak patroi berarekin.
- Jendaurreko arazoak: lotsa, hitzaren garrantzia, auto-segurtasuna, nabarmentzea...
- Perfekzionistak autodestrukzioraino: 15, 16 urterekin utzi etab.

### **Ezaugarri jakin batzuk genituenak egin dugu bide.**

- Kasualitatez? Besterik onartu zitekeen?
- Maskulinitzat jotzen diren ezaugarriak baloratu oholzan: indarra, erantzuteko gaitasuna, ahots indartsua, segurtasuna...



## GORPUTZA:

“Arraterena gorputz sendoa da, irmoa, pieza batekoa, eta horrek euskal kulturaren sustraitzen laguntzen dio (...), bere gorputzera bat dator bertsolaritzaren gorputzasunarekin. Baina, era berean, kultura horrekiko desafioa ere bada, kulturaren beraren barnetik egiten dena. Nire argudio nagusia da gorputzak oinarrizko papera jokatu duela gizonezkoen munduan –bertsolaritzan, kasu- ausartu diren emakumeen presentzian eta zilegitzean, eta oro har euskal gizartean”

■ *Arrate: La corporeidad como reto cultural*, Esteban, Mari Luz (2004) “Antropología del cuerpo: genero, itinerarios corporales, identidad y cambio”. Ediciones bellaterra





## ■ Plazan

### ■ **Kontestua:**

- Bertsolariak (hasieran): beste harreman bat euren artean, beti aipamena *“neska bat dugu gaur...”*
- Bertso giroa: gizon helduen giroa. Paternalismoa...
- Oso rol jakinetan beti
- Kuriositate bezala ibili gara/gaituzte
- Diskrim. positiboa deitzean bai, baloratzean ez.

### ■ **Errekonoizimendua:** hiru aldiz on, behin ona izateko.

### ■ **Etxean:** 14-15 urte, bertso munduan hara hona, ezagun egiten...





# Plaza



- “Plaza espazio publikoaren sinbolo den aldetik, onarpenaren sinboloa ere bada, esistitzearena, nor izatearena, ikusgarri izatearena. Plazaren zentrua boterearen gunea da; zure ahotsak mikrofonoa izatea modukoa da plazaren zentrua. Ertzekoak ez du bozgorailurik. Baina, ertzean bada ere plazan badago, edo badabil, jalgi den seinale, baden seinale, sarri ikusi nahi ez bada ere.” (Maialen Lujanbio. *Plazatik plazera*)

*Ia plaza*  
*plazagizonena*  
*nahiz ta*  
*plaza, gizonena*



*soilik*  
*baden*

- “Plazako bertsolaritza gizonezkoek eta gizonezkoen eran egituraturiko jarduna da” (Estitxu Eizagirre)
- “Plazako egungo joko arauekin irabaztera ere iritsi dira emakumeak. Baina topaketetan bildutako emakumeen inpresioa da, oholtzara igotakoan euren balio femeninoak direla behean uzten dituztenak, eta maskulinoak markatuz igotzen direla” (Estitxu Eizagirre)

# + Besamotzaren besoa

- “Nik ezin dut bertsolari izan”
- Ez dakit gizonezkoak imitatzen
- Ez dauzkat oholtzan behar diren ezaugarriak: segurtasuna, arrazoi sendoa, konfiantza, “zapalkuntza”, erantzun azkarra, grazia
- Nire ezaugarriak: kezkak, zalantzak, beldurrak, galderak, ezinak, lider izateko konplexua (harrotasuna), seriotasuna
- Gai handi eta unibertsalak ez zaizkit hainbeste interesatzen: politika, gizartea, kultura, kirola...
- Nola egin geure bidea, bertso saioetan ia beti emakume bakarra baginen? Ni-aren eraikuntza oso ahula
- Gizonezkoek “onartzen” gintuzten:

**leku egiten ziguten beren munduan baina, lekurik egiten zioten gure munduari?**





# Nolakoa izango litzateke bertsoalaritza emakumeek garatu izan balute?



- Formak, edukiak, doinuak, keinuak, lekuak, giroak, orduak, hizkerak, gaiak, tonuak, umorea, jarrerak...



- Emakumetasunaren kontzientzia (positiboa)
- Emakumetasuna: aukera





# TALDEA

- Ezinbestekoa: gazte taldea, berrikuntza tematikoa, estetikoa...
- ASKIZU
- GENERO TALDEA...



Belaunaldi aldaketak



Hamaika Bertute



Bertso-udalekuak



# + Kontzientzia hartzea

## ■ Neutrotik (maskulino unibertsalek) femenino singularrera

- Denok hasten gara bertotan neutroak garela pentsatuz
- Hizkuntza, hitzak, umorea, plaza, bertsolariak, entzuleak... EZ DIRA NEUTROAK
- Femeninoaren ikusezintasuna
- “Los iguales las idénticas” / ordezkagarritasuna
- EMAKUMERA BATUA





# Izar iheskorrak



**Itxaro Borda:**

“Nik bertsoak idazten nituen gehienbat, kantatu ere bai, baina ez ausart, beti nire herabekeriarengatik. Garai haietan, 1970eko hamarkada hartan ez zen emazterik ez neskarik bertso munduan, eta beraz, idatziz bai, Marijan Minaberrik ere egiten zituen Herrian bertsoak nik bezala, baina plazetan oso laster harrapatzen genituen halako belarrondoko batzuk, gogorak, eta uste dut batzuetan belarrondoko haiek umiliatzaileak zirela. Beharbada, ez nahita, beharbada irri egiteko, baina bere burua mundu honetan aurrera atera nahi duenarentzat umiliatzaileak suertatzen dira halako belarrondokoak, eta enetako uste dut hala gertatu zela. Eta gero, energia asko behar nuen jendearen aitzinean agertzeko, eta hori ezinezkoa zen, errazago da bakartasunean idaztea.”





### **Ainhoa Agirreazaldeg:**

“Nekatu egin nintzen. Harreman maskulinoak ziren eta uste dut konturatu gabe urrutiratzen joan nintzela. Ez zen erabaki kontzientea izan baina ni ez nintzen beteta sentitzen: burua izugarrizko maratoni batean ariko balitz bezala baina bihotza hutsik, eta ez nuen orekarik topatzen. Azkenerako, ia nahi gabe, distantzia hartu nuen, sinesteraino nik oholtzan ezingo nuela nire lekuri topatu eta elkar ondo ulertuko genuen bertsokiderik ere ez nuela topatuko. Poliki-poliki emakume dexente joan dira desagertzen, orain nitaz ari naiz, baina printzipioz gaitasunak zituen edo teknikoki ondo funtzionatzen zuen emakume talde handi xamarra desagertu zen nirekin batera. Haien ere, seguru asko, ez zuten beren burua topatu harreman sare hartan. Bertsolaritza bizitzeko modu asko daudenez, beste gauza batzuk egiten hasi nintzen, ikerketaren alorrean gehiago. Kontua da, nonbaiten egokitzen ez zarenean sekula ez dakizula zenbateraino den zure gaitasun eza eta zenbateraino den sistemaren akatsa, baina jende asko desagertu da benetan bere gaitasunak zein ziren jakin aurretik, gizonezkoak ere bai, baina emakumeak asko, emakumerik gehienak.”





## Neutrotik femenino singularrera go bidean, non kokatzen dira emakume bertsolariak? Zenbat singularitate daude?



Drag king

Drag queen

### ■ Drag king-en belaunaldia (Lujanbio, Arozena, Ibarra, Agirre...):

- Bertsolari izaera onartu zitzaien gizonak bezala egiten bazekitela demostratu zutelako... baina ia emakume izaera ukatzearen truke.  
("ze ondo, gaur egungo emakume bertsolariek emakumeak ematen duzue")  
("honek bai, honek bi potro dauzka!")
- Bertsolariek eurek ezaugarri femeninoak leuntzen eta maskulinoak indartzen zituzten taulara agertzeko.
- Entzuleen epaia: ikusten ari naizen hori ez da benetako bertsolaria **edo** ez da benetako emakumea



- **Panpinen belaunaldia** (Amuriza, Uria, Arzallus, Alberdi, Martin...):
  - Hobeto sartzen dira belarritik/begitik... Politikoki politak. Trabarik egiten ez dutenak. Desiragarriak. Neurtuak.
  - Hauek benetako emakumeak dira, baina benetako bertsolariak?







# Emakume bertsolarien ekarpena



**Behatzaile legitimoa**  
**vs.**  
**Legitimitaterik gabeko behatzaile irrazionala**

- Egaña, Sarasua eta Gartziaren teorian bertsolaria behatzaile legitimoa da:
  - **Arrazoia, oratoria eta komunikazioa** ditu tresna.

“Egixe da neuk ikusi dodalako”





- Lujanbiok (eta emakume bertsolari gehienek) **emozioak, barne-bizitza eta enpatia** ditu tresna, beraz, **legitimitate gabeko behatzaile irrazionala da.**

“Egixe da neuk sentitu dodalako” / “Ez dakit egixe dan baina neuk behintzat sentitu dot”



**DIKOTOMIA** –genero sistemarekin lotuta-



“emakume emozionalak arriskutsuak dira, indartsuak bezain kontrolaezinak direlako”

## EMOZIOA POLITIKOA DA PERTSONALA POLITIKOA DA

- Ama birjina vs. Maria Magdalena
- Emakume transmisorea vs. Emakume traidorea

Ze kantaera, ze gorpuzkera, ze hizkera, ze izaera espero da emakume bertsolariarengandik?

EMAKUME NEURTUA (Logom)  
Lotsagabea bai, lotsagabeegia ez  
Kontudentea bai, kontudenteegia ez  
Ausarta bai, ausartegia ez



Ardatz horizontalean bakarrik ez, bertikalean ere badaude hutsuneak



Emakume bertsolariak

Unibertsitariak, intelektualak  
-Klase ertain-altukoak  
-Gazteak  
-Ofizio liberalak: irakasleak, artistak...

Posizio horretatik, nola marrazten ditugu etxeoandreak, putak, auzo pobreetako emakumeak, super-merkatuetako kajerak, ile-apaindegian prentsa arrosa irakurtzen dutenak, baserritarrak, amak, amonak...

(hau gizonezkoengan ere gertatzen da, baina aniztasuna handixeagoa da)

# + Imaginatzen bertsoan?



# + Nola irudikatu da (euskal) emakumea

## bertsotan?

■ Gema Lasartek argitaratu berri duen tesia: *Protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean.* (Bertsotan oraindik ikertzeke)

- Nolako amak, nolako alabak, nolako neska-lagunak, nolako ahizpak, amonak... marraztu ditugu?



+ Euskal Herrian, orain, zer da “bertsolari normala” izatea?

■ KANONA

Gizonezkoa, gipuzkoarra, ezker abertzalekoa, heterosexuala,  
klase-ertain altukoa, intelektuala...

“Kanona ez du gizonezko batek sortzen: 4 gizonezkoek sortzen dute:  
AUTOREAK (bertsolariak), MERKATUAK (antolatzaileak, managerrak,  
editorialak...), KRITIKARIAK (epaileak eta kritikariek) eta IRAKASLEAK  
(Transmisoreak)”

Josune Muñoz



+ Zenbat emakume!!!!







# Emakume hitzak asko okupatzen du...

**Gaia:** zu, Ainhoa, pilotaria zara eta partida bat jokatu behar duzun bakoitzean kandela bat jartzen dio Uxue amonak Ama Birijinari. Azkenaldian, ez duzu partida bakar bat ere irabazten.

## 1. Ainhoa

Nahizta kandela ari den pixkanaka urtzen goitik inortxok ere neri ez dit laguntzen ainkoarekin nago hasita beldurizen neska pelotariak ez ditu ezagutzen

## 2. Uxue

Pelotan neskatila hau dabil galako galtza txuriak jantz dejada ta salto ainkoa zure alde ez da jartzen bapo baina justu jainkoa gizona dalako

## 3. Ainhoa

Frontoian gehiegitxo ez dira bi parel, baina, nere kasara, zer egin dezaket? Nola lagunduko dit gizon jainko batek? Zure sorginkeritan gehio sinisten det

## 4. Uxue

Nere ustez ona zen kandelan taktika baina aldatuko det neraman praktika irabaziko dezu partidua ti-ta Anbotoko Mariri kandela jarrita

## 5. Ainhoa

Anbotoko Mari da dama dotorea a hark ni laguntzea a zer ohorea hari kandelarikan ez jarri, ordea, amona jarriozu eguzkiloera

## 6. Uxue

Ekiren babespean ondo egongo zara neska ta pelotari dena duzu traba hartu zazu amonan muxu ta eupada, zuk jolastea soila irabaztea da

**Gaia:** Jubilatatu zinenetik maiz joaten zara mendira bakarrik, nahiz zure seme-alabek, beste norbaitekin joatea hobe dela esan. Gaur, maldan gora zoazela, ondoezak jota lurrera erori zara. Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan.

Hirurogeita hiru urtekin lanpostutikerretira egin nuen, ta orain goizero abiatzen naiz mendira ; maiz pentsatzen det «nere lagunak animatuko balira!», baina alferrak izaki eta bakarrik joango naiz, tira. Aldapan gora asnas estua, ezin ikus urrutira; inor ez daukat aldamenean, inor ez nitaz kupira; erdi etzanda marcatuta *laguntza eske an di-da:* «Etorri bila, etorri bila», baina beranduegi da.

Hanka meharrak eta adina nere kontra, nere etsai; nik nahi nuena aldapa hontan abitu ta gora jarrai. Erori egin naiz, baina gaitzerdi, bihotzak taupaka darrai; eta gizon bat hor inguruan, salbazioa leike, ai! Besoak altxa ta oiuhu egin det «chemen etzanda nago, bai!»; ez dakit asko iraungo dudan, nago izerdi hotzez blai; «etorri zaitte ni laguntzera, hementxe nago zure zai», baina gizonak ez nau ikusten edo ez nau ikusi nahi.

Malkar batean, noraezean, hemen nago parregarri; une batean elkartu zaizkit heriotz eta jatorri; ezin naiz jeki, ezin oiuhu egin, ezin dut etxera korri; «nere arnasa geratuko da...», hemen estu eta larri. Seme-alabek neri errita ein izan didate sarri, ta orain negar egingo dute ta arrazoi eman elkarri. Nik adio bat esaten diet ta zuek hona etorri; beti hainbeste maite nituen arrosa gorriak jarri.

Maialen Lujanbio






# Pertzepzioa eta errealitatea ez datoz bat




Probintzietako azken txapelketak



Gizonezkoak %80,85

Emakumezkoak %19,15

Txapelketa Nagusia 2009



Gizonezkoak %70,5

Emakumezkoak %29,5



## Iritzia

### Txapeldun berria

# Sentimenduen hizkuntza gailendu da

Historikoak dira igandeko hiru argazki: Andoni Egañak bi ondorengo, Lujanbio eta Arzallus besarkatu zituenekoa bata. Iparraldeko gazte zorrotz eta xamurra emakume landu beltzarekin lehiatu zenekoa bestea. Eta plazetako errege Joxe Agirrek, plazako jardunak eskatzen zituen lau agurrak botata, txapela jantzi zionekoa, hirugarrena.

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Dani Blanco

**PEÑAGARIKANO** –Anjel Mari– genuen aurrean eserita, eta bertsoaldi bakoitzaren osteko bere aurpegiak esaten zuen dena. Inoizko finalik parekatuena bizi izan genuen, eta bazkalorduan buruz-burukorako bost izen entzun zitezkeen, “ojo, eta ojo” artean, bati eta besteari galdetuz gero.


Emakumeok etxetik “Maialen” besterik esaten ez genuela joan ginela arpa jotzen zigan Peñak, eta arrazoi faltarik ez. Baina objektibotasunera jaitsiz, gizon askok ere Lujanbioren lana nabarmendu zuten goizean zein arratsaldean. Eta Arzallusek txapelak erantzeko saioa egin zuen, bederatzita puntuak zortziko txikikoak bailiran josiz, eta puntuero esanahiari buelta bat erantsiz. Saioa intentsitatea irabaziz joan zen, buruz-buruko estua ikusi genuen, eta giroaren mozkorraldian, hitzek piztutako suak aseta, egia esan batak zein besteak irabazi kasik bertin zuela sentitu genuen.

#### Aurten behar zuen

Burua egoskortzen zitzaidan Lujanbioren alde. Andoni Egañak hamasei urtez eramandako lekukoa berari hartzea zegokiola. Irudikatze batetik, eta mamitzeko, bes-tetik. Irudikatze gizonetzkoen plazan emakumeak eginiko urratsak: Kristina Mardaras gurutzatu nuen saio ostean, eta hitz gutxi behar zuten haren begiek. Berak hasitako bidea gailurrera iritsi zela otu zitzaidan. Lujanbiok txapelketan Mardarasek hasitako zirkulua itxi berri zuela. Eta gertatu da txapelketako saio bakoitzean emaku-

me bat aritu den urtean. Inflexio puntu bat izango ahal da.

Mamiz ere Lujanbiok urratu du bidea zortzi urteotan. Gazte lotsagabe eta kolpekoa zenak landu egin zuen bere burua eta hezi publikoa, kolore guztietako emozioak sortzeko gai izan zedin bera, eta pertzibitzeko belarriak zabalik izan genitzan guk. 2001ean Himalayan galdutako lagunaren gutuna irakurri zuenean, bakarkakoak lan-tzeko modu bat ireki zuen. Narrazio batean oinarritua, deskribapenez eta ekintzaz indartua. Horren ondorioz, edo nahi bada kasualitatez, baina garaian bat etorrira, gai erabat irekiak jartzeko joera etorri zen, ia abiapuntua bakarrik emanaz eta gaia bera, gertakizuna, bertsolariaren esku utziz.



# + Hemendik aurrera, zer?

“Pertsonak gauza bakarra erabaki behar du: kosmosa aliatua ala etsaia den”.



**WANTED**

**WANTED**

**WANTED**





# Nola eraiki? Norantz eraiki?

Egoskortu: irudikatzeko + mamitzeko

Emozioak sortu >>> Publikoa hezi >>> Perzibitzeko belarriak irekita

BI NORANTZA:

- Komunitate feministetatik komunitate kulturalari egindako ekarpenak (emakumeok plazara...)
- Komunitate kultural konkretu baten barrenetik hedatzen diren diskurtso feministak (Skolastika, Sareinak...)
  - Lan pertsonala, autore lana, autoreen ekarpenak
  - Bertsozale Elkartetik: Genero Taldea + sortu litezkeenak
  - **BITARTEKARI ESPEZIALIZATUAK**: diskurtso, ikuspegi feminista edo anti-sexista barneratua duten epaile, kazetari, kritikari, irakasle, gai-jartzaile, antolatzaile eta entzuleen beharra





## MAITE DITUT DENAK

Emakume zuzenak,  
okerrak, kirtenak,  
moja txintxoak eta  
zerrama irtenak,  
itsusiak, politikak,  
atletak, herrenak:  
konplize ditut eta  
maite ditut denak.

Langileak, alferrak,  
lanik ez dutenak,  
tuntunak, mediokreak,  
klaseko lehenak,  
ale desegokiak,  
andre txit gorenak:  
konplize ditut eta  
maite ditut denak.

Āma onak ta txarrak,  
ama ez direnak,  
lurrera jausi arte  
mozkortzen onenak  
ta umeen merienda  
usaina dutenak:  
konplize ditut eta  
maite ditut denak.

Lotsatiak, ausartak  
argalak, gizenak,  
iletsuak, soil-soilak,  
marimutilenak,  
katemeak, gorilak  
panterak, zezenak:  
konplize ditut eta  
maite ditut denak.

Markesaren alabak,  
neskame gizenak,  
printzesak ta sorginak,  
ogroak, sirenak,  
Maritxuak, Bartolo  
itxura dutenak:  
konplize ditut eta  
maite ditut denak.

Lehen munduko emeak,  
kapitalistenak,  
lur usaia daukaten  
andre indigenak,  
zuri, gorri, horiak,  
beltzetan beltzenak:  
konplize ditut eta  
maite ditut denak.





Mila esker zuen arretagatik!!!

